




1997ko apirila / 23. alea

Herri Aldizkaria  
**Otamotz**



**Otamotz  
berriz ere  
martxan**

ELMATEA


**ZINTZO  
ZINTZO**

ELMATEA

# UROLA GARAIKO LANBIDE ESKOLA

Lanbide heziketako udal herri institutoa

**MATRIKULA ZABALIK**  
maiatzaren 2tik 17ra arte  
INFORMAZIOA: 725477 telefonoan,  
9etatik 13etara.



## ● Edonondik etor zaitezke:

- .-D.B.H. amaitzean
- .-Batxilergoetatik
- .-Unibertsitatetik
- .-Lan mundutik
- .-Langabezitik

## ✓ IKASKETA ARAUTUEN ESKAINTZA:

- .-Batxilergo teknologikoa, 1.kurtsoa (euskaraz nahiz gaztelaniaz)
- .-Batxilergo tekniko industrialaren 2. kurtsoa (REM) (euskaraz nahiz gaztelaniaz)

## ✓ ERDI MAILAKO ZIKLOAK:

- .-Mekanizatua
- .-Ekipo eta instalazio elektronikoak

## ✓ GOI MAILAKO ZIKLOAK:

- .-Mekanizatuaren bidezko produkzioa
- .-Industri ekipoen mantenimendua

## ✓ LANBIDE HEZIKETA II:

- .-Elektronikako 2. eta 3. mailak

## ✓ IKASKETA EZ ARAUTUETAN ere aukera



UROLA GARAIKO LANBIDE ESKOLA

U.G.L.E. H.E.T.E.L. eko kide  
TEKNOLOGIA ETA KALITATEA

**Ezkio-ltsasotik eta Legazpitik garraio zerbitzua doan**

## Bertso jaialdia

*Azken boladan herri honetan bada berri bat fuertea, hurbil omen da seme kuttun bat monarkira joatea.*

*βodan eliza espero degu zumarragarrez betea, boda ederra izango baita hain da mutiko maitea eta erdian alkatea.*

*Garai batean hemen euskerak hainbesteko indarra zu(e)n, ez dakit berriz lortuko duen orduan a(d)ina oiartzun, bukatu aurrez aholkutxo bat zuri eskeini nahi nizun, zer egin jakin dezazun: (bis) norbait hizketan hasten denean Zumarraga edo Urretxun, "Oye, ¿Qué hora es?" galdetzen badu "Meza pasa zan" erantzun (bis)*



**Xabier Euskitze**



Antzerkia izan zen protagonista apirilaren 19an, **Carlos Merino, FLAY** orain dela urte bete auto istripuan hil zen lagunari eskainitako omenaldian.

**FLAY** aktorea zen, eta gutako bakoitzaren barrualdean betirako bizirik iraungo duen arren, guztiok batera, antzerki giroan egun luze eta alai bat ospatu genuen. **FLAY** gogocan izatea zuen helburutzat apirilaren 19an egindako guztiak.

"Robin Hood", "La bella y la bestia", "Cineman", "El doctor Livingstone, supongo?" eta beste hainbat antzezlan egin zituen **Carlos Merinok** aktore lanari ekin zion bitartean.

Hala ere, tamalez, ez genuen inoiz Urretxu-zumarragako eskenatiketan ikusteko aukerarik izan, Zergatik? Auskalo, esacerak dioenez ez da batere erraza norberaren lurraldean profeta izatea eta kasu haonetan ere halaxe ulertu beharko dugu. Azken finean, **FLAY** Iruñara joan zen Arte Dramatikoko ikasketak egitera eta bertako antzerki munduan erabat murgildurik eman zituen bere bizitzako azken urteak.

Horregatik, omenaldia egiterakoan ezinbestekoa zen bere aktore

lanari gainbegirada ematea eta bere Iruñako antzerki taldeak Urretxu-Zumarragan zuzenean ikusteko aukera izatea.

Jantzi, apaingarri eta argazki erakusketak alde batetik, eta bere antzezlanen bideo emanaldiak bestalde, **FLAY**ren, lana jarraitzeko aukera eman zion egun horretan Urretxuko Pagoeta antzokira hurbildu zen guztiari. Gero, "Scaramouche"ko partaide izan zen, eta gaur egun "Calambur" osatzen duten aktore gateak **FLAY**ren gidaritzapean hasi ziren antzerki munduan.

Hauxe zen nolabaik guztion helburua; **Carlos** laguna antzerki giroan elkarrekin gogoratzea, bere bizitzako hiru ardatz nagusiak; familia, lagunak eta antzerkia bateginez, Iruña, Urretxu-Zumarragara hurbilduz alegia.

Hasieratik, antolakuntza guztia lagunen kontua izan zen, ideia edo asmoa horrelaxe sortu zelako, baina ezin dugu ahaztu Urretxuko Kultur Etxearen laguntza ezinhobea. Mila esker guztion izenean, bereziki Miren eta Ireneri.

**Xabi Andueza**  
lagunen izenean



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Saila eta Hizkuntza  
Politikarako Sailordetzaren diru  
laguntza jaso du


**Argitaratzailea:** Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20.700 Urretxu. Tel:725775 **Koordinatzailea:**Amaia Pildain. **Erredakzio kontseilua:** Jon Balenziaga, Aitor Esnal, Jonmikel Insausti, Sebas Iturrioz, Idoia Luzuriaga, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Asier Zaldia. **Publizitatea:**Jon Balenziaga eta Idoia Luzuriaga **Diseinua:**Sebas Iturrioz. **Informatikaria:**Jonmikel Insausti. **Inprima-tegia:**GERTU Koop. E (Zubillaga. Oñati) **Lege Gordailua:**SS-742/96 **ISSN:**1136-7318 Tirada:1.300 ale. **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

Berpizkunde astelehenean Uharte Arakilen gertatutako tren istripuak, eragin handia izan du Urretxu eta Zumarragan.

Zehazki esaterik ez badugu ere, badirudi hamabost herritar inguru zetorrela trenbidetik irten zen trenean. Oso une latzak bizi izan zituzten bidaiariek eta baita hauen senitartekoez ere. Bizitzari buruz zer pentsatua ematen duen gertakizuna izan dela diote behin eta berriz egoera hori bizi izandako guztiek.

RENFEn esanetan, giza akats baten ondorioz gertatutako istripua izan zen. Guztira 18 hildako izan zen eta zaurituak ere asko izan ziren. Hauetako gehientsuenak psikologoaren laguntza beharrean izan dira oportunitate buek bueltan zetozela gertatutakoa ahazteko.


Guk aipamen berezia egin nahi diegu istripuan bizia galdu zuen eta herrian hain ezaguna zen Igor Elgarresta Gonzalez gazteari. Zaurituei dagokienez, berriz, Jose de La Poza zumarragarra eta Ana Maria Flandes urretxuarra dira oraindik ere eritetxean jarraitzen duten herritarrek. Gainontzekoak etxean daude dagoeneko. Hauei eta Harkaitz Ortiz Agirre legazpiarrari lehen bait lehen osa daitezten opa diegu.



Argazkia: Iker Kotx



Gorka Ojanguren bertsolari urretxuarrak, hilaren 20an Gabirian jokatu zen XXVI. Osinalde sarian hartu zuen parte. Guztira 6 bertsolari gazte aritu ziren lanean eta Gorka Ojangurenek saririk jaso ez bazuen ere, lan txukuna egin zuen. Irabazlea Xabier Sukia oriotarra izan zen. Osinalde sarian egun ezagunak diren bertsolari ugari hartu izan du parte, Mendizabal, Sorozabal... besteak beste Gabirian txapeldunak izandakoak dira.



Udal Euskaltegiak antolatuta, Juan Mari Irigoien idazle ezagunak euskaltegiko ikasleei zuzendutako hitzaldi interesgarria eskaini zuen apirilaren 16an, eta Kultur Etxean. Ikasle ugari izan zuten Irigoienek hitzaldia entzuteko parada eta benetan gustura entzun zituzten idazleak kontatutako kontu eta bitxikeria guztiak

Hilaren 21etik 27ra izan den Urretxu-Zumarragako Josu Etxeberrria XI. antzerki astea, antzezlanen kalitate aldetik zein ikuslego kopuruaren aldetik erabat arrakastatsua gertatu da. Bildu zen ikusle kopurua kontuan hartuz, azken urteetan bi herriotan antzerki zaletasuna nabarmen handitu dela esan daiteke. Guztira 80 bono saldu baitira, iaz baino 50 gehiago eta hiru egunetan sarrera guztiak saldu dira. Pagoeta Antzokia beraz, txikia geratu da aurtengo antzerki astean. Kalitate aldetik oso lan onak antzeztu dira, entretenigarriak, landuak eta ondo interpretatutakoak guztiak. Hizkuntzari dagokionez, euskarazko antzezlan bakarra taularatu dela esan behar, antolatzaileek emandako arrazoia euskarazko lanak urriak izatea eta Antzerki Sareak, astea antolatzen ekonomikoki lagundu duenak, euskarazko antzerki gutxi dituela aukeran izan dira.



Gorka Zufiaurre urretxuarra bere ahizpa Sararekin batera, ATZEGIk, adimen urritasuna duten pertsonen aldeko Gipuzkoako elkarteak, gutxitu psikikoen gizareratzea bultzatzeko martxan jarri duen kanpainako kartelaren protagonista da.



1998 urtean Zelai Aristi zinemak atek zabalduko ditu, urtarrilean Zumarragako udalak zinemaren jabeekin erosketa akordioa sinatu baitzuen. Guztira, 84.800 milioi pezeta ordaindu beharko ditu udalak eta Europear Elkarteko dirulaguntza jasoko du. Legealdia bukatzerako, 1999 urterako ordainketa guztia egingo da. Irailean hasiko dira zinemaren birmoldaketa lanak eta datorren urte bukaerarako Zelai Aristi zinemara joateko aukera izango dugu.

# Otamotz, berriz ere martxan



Urtarrilaren 24tik 25eko gaua bitartean lapurrak Zintzo-Mintzoko egoitzara sartu eta Otamotz kaleratzeko beharrezkoa zen tresneria guztia lapurtu zuten. Bi ordenagailu, bi inprimagailu, irakurle optikoa, skanerra, irrati bat, kasetak, bi argazki kamera... dena eraman zuten.

Otamotz berriro ere kaleratzeko beharrezkoa den tresneri berria erosi ahal izateko diru bila hasi ginen eta 1000 pezetako laguntza-bonoak jarri genituen salgai.

Laguntzaile asko izan ditugu, Zintzo-Mintzoko zenbait bazkidek eta bazkide ez diren adin desberdinetako herritar ugarik hartu baitute bonoak saltzeko ardura.

Erosleak ere asko izan dira. 635 bono saldu dira eta beraz, 635.000 pezeta lortu dira. Tresneri berria erosteko nahikoa diru ez bada ere benetan eskertzekoa da horrenbeste herritarrek eskainitako laguntza.

Apirilaren 12an bertso jaialdia egin zen Beloki pilotalekuan. Amuriza, Euskitze, Iturriaga eta Sarasua aritu ziren bertsoan, Juanjo Sagastibeltza, izan zen gaijartzailea. Benetan Juanjori eskertu beharrean gaude gaijartzaile lanak uzteko erabakia hartua izan ondoren, Zintzo Mintzok antolatutako bertso jaialdi honetan lanean aritzea.



# Eskerrik asko lagundu diguzuen guztioi

Acosta Pili  
 Agirre Jon Pol  
 Agirre Jose Luis  
 Agirre Jose Ramon  
 Agirre Josune  
 Agirre Koldobika  
 Agirre Loli  
 Agirre Lurdes  
 Agirre Nekane  
 Agirre Zoila  
 Agirrebengoa Xabier  
 Agirreburua de Sorkunde  
 Agirreurreta Miren  
 Agirrezabal Ane Miren  
 Agirrezabal Eulali  
 Agirrezabal Jon  
 Agirrezabal Joseba  
 Agirrezabal Pello  
 Agirrezabal Pello  
 Aguado Nieves  
 Aiausti Juli  
 Aicua Soto  
 Aierbe Iñigo  
 Akizu Arantxa  
 Akizu Pello  
 Akizu Xabier  
 Alberdi Antxiñe  
 Alberdi Arantxa  
 Alberdi Eguzkiñe  
 Alberdi Itziar  
 Alberdi Jexux Mari  
 Alberdi Joseba  
 Alberdi Josune  
 Alberdi Julita  
 Alberdi Mila  
 Alberdi Miren  
 Alberdi M<sup>o</sup> Carmen  
 Alberdi M<sup>o</sup> Jose  
 Albisu Agustin  
 Albisua Andoni  
 Albisua Inma  
 Albisua Itziar  
 Albisua Luis  
 Albisua M<sup>o</sup> Asun  
 Albisua Timoteo  
 Alcon Iñigo  
 Aldalur Iban  
 Aldama Jon  
 Aldanondo Juanma  
 Aldasoro Mikele  
 Aleman Felix  
 Alkorta Ekai  
 Alkorta Montse  
 Alustiza Ane  
 Alustiza Iñaki  
 Alustiza Josean  
 Alustiza Ramon  
 Alvarez Ana  
 Alvarez Iñaki  
 Alvarez Jabi  
 Alvarez Marisa  
 Alvarez Marivi  
 Alzelai Alazne  
 Alzelai Edika  
 Amilibia Miren  
 Amilleta Joxepi  
 Amozarrain Nekane  
 Andres Maria  
 Andres Mikel  
 Andueza Nere  
 Andueza Alaine  
 Andueza Bittor  
 Andueza Eneida  
 Andueza Jorge  
 Ansorena Victor  
 Antoñana Jokin  
 APALATEGI kirolak  
 Apaolaza Ander  
 Apaolaza M<sup>o</sup> Jose  
 Arakama Aitor

Aramendi Andres  
 Aramendi Maialen  
 Arana Ane  
 Aranbarri Ana  
 Aranbarri Asun  
 Aranburu Amaia  
 Aranburu Ana  
 Aranburu Antxiñe  
 Aranburu Itziar  
 Aranburu Jexux Mari  
 Aranburu Jose Luis  
 Aranburu Joseba  
 Aranburu Juan Luis  
 Aranburu Kontxi  
 Aranburu Martin  
 Aranburu Xabier  
 Aranguren Ainhoa  
 Aranguren Alazne  
 Aranguren Jose  
 Aranzadi Iñaki  
 Araña Bixente  
 Arbizu Aritz  
 Arbizu Ramon  
 Arburua Patxi  
 Areizaga Jabi  
 Argandoña Koldo  
 Arias Ricardo  
 Arin Juani  
 Arin Julita  
 Aristi Ales  
 Aristi Ane  
 Aristi Loren  
 Arizmendiarieta  
 Aintzane  
 Arizti Arantza  
 Arkauz Alberto  
 Arostegi Arantxa  
 Arozena Jabier  
 Arozena Jose M<sup>o</sup>  
 Arranz Iñaki  
 Arranz Mikel  
 Arratibel Xabier  
 Arratibel Xabier  
 Arrazola Ane  
 Arrazola Miren  
 Josu  
 Arrese M<sup>o</sup> Luisa  
 Arribillaga Josebe  
 Arrieta Arantza  
 Arrieta Idoia  
 Arrieta Juanjo  
 Arrieta Miren  
 Arrizabalaga Itziar  
 Arrizabalaga Sara  
 Artolazabal Amaia  
 Artolazabal Araitz  
 Artolazabal Juanbi  
 Artolazabal Mikel  
 Arzuaga Jokin  
 Aseginolaza Begoña  
 Aseginolaza Sorkunde  
 Askasibar Maite  
 Asurabarrena Egoitz  
 Ausin Maite  
 Auzmendi Asier  
 Auzmendi Irati  
 Auzmendi Jon  
 Azkarate Gorka  
 Azkarate Karlos  
 Azkarate Mirari  
 Azkune Laxaro  
 Azpiazu Jose Joaquin  
 Azpiroz Itziar  
 Aztiria Ane  
 Aztiria Arantxa  
 Aztiria Jose M<sup>o</sup>  
 Aztiria Josu  
 Azurmendi Ana  
 Azurmendi Lurdes  
 Azurmendi Ramon  
 Azurmendi Santi  
 Babarro Rikardo  
 Badiola Ana  
 Badiola Koro  
 Badiola Maite  
 Badiola Mitxel  
 Badiola Unai  
 Baez Maialen  
 Baez Nere  
 Balentziaga Jon  
 Balentziaga Juan Mari  
 Balentziaga Miren  
 Balerdi Andoni  
 Ballina Belen

Ballina Cesar  
 Ballina Mila  
 Bazarin Natalia  
 Barbero Marivi  
 Barrasa Ruth  
 Barredo Ana  
 Beatriz  
 Barrena Amaia  
 Barrena Koldo  
 Barrenetxea Jose M<sup>o</sup>  
 Barriola Xabier  
 Basabe Agurtzane  
 Basabe Garbiñe  
 Basabe Iban  
 Bastarrika Iñaki  
 Bastarrika Pruden  
 Bastarrika Belen  
 Begiristain M<sup>o</sup> Jose  
 Beltza Nahikari  
 Benitez Ascen  
 Berasategi Jose  
 Bereziartua Nekane  
 Bergara Juanjo  
 Bernabe Margari  
 Bernaras Izaskun  
 Berrio-Otsoa Pablo  
 Berriotxoa Pedro  
 Beruete Ascen  
 Betegi Eusebio  
 Biain Antton  
 Biain Josune  
 Biain Pello  
 BITS ileapaindegia  
 Biurrun Helena  
 Blanco Nerea  
 Blazquez David  
 Blazquez Maite  
 Boillos Txaro  
 Bolinaga Olatz  
 Bravo Aurori  
 Bravo Iñaki  
 Bueno Alfredo  
 Burdaspar Carlos  
 Buron Unai  
 Busca Antton  
 Calvillo Irene  
 Calvo M<sup>o</sup> Casilda  
 Cantalapiebra Mariano  
 Carrasco David  
 Carrillo M<sup>o</sup> Jesus  
 Casas Jeronimo  
 Castillo Miren  
 Cendoya M<sup>o</sup> Cruz  
 Cobos M<sup>o</sup> Jose  
 Corrales Arantza  
 Corrales Gurutze  
 Cristobal Miguel A.  
 De Andres  
 Inmaculada  
 De la Hera Ana  
 De las Fuentes Josu  
 Del Olmo M<sup>o</sup> Carmen  
 Diaz Marian  
 Diego Amparo  
 Dorronsoro Juanita  
 Egaña Beatriz  
 Egaña Javier  
 Egaña Ritxar  
 Egiguren Inaxio  
 Eguren Javier  
 Eizmendi Jesus  
 Elgarresta M<sup>o</sup> Jose  
 Elgarresta Txemi  
 Elizburu Jaione  
 Elizburu Amaia  
 Elizondo Antonio  
 Elizondo Juan Luis  
 Elola Emiliano  
 Elola Mari Tere  
 Enparanza Jorge  
 Erasquin Juan M<sup>o</sup>  
 Erostarbe Agustin  
 Erostarbe Maria  
 Erostege M<sup>o</sup> Angeles  
 Errasti Nerea  
 Eskudero Itziar  
 Esnal Aitor  
 Esnal Jose Luis  
 Esnaola Luisi  
 Esteibar Jose Ignacio  
 Etzaluze Fco. Jabier  
 Etzaniz Alaitz  
 Etzaniz Arantza  
 Etzaniz Arrate

Etzaniz Bego  
 Etzaniz Iñaki  
 Etzaniz Jesus M<sup>o</sup>  
 Etzaniz Jose M<sup>o</sup>  
 Etzaniz Lourdes  
 Etzaniz M<sup>o</sup> Jose  
 Etzaniz Nikolas  
 Etzaniz Olatz  
 Etzaniz Rosa  
 Etxeberria Aitor  
 Etxeberria Iñaki  
 Etxeberria Iñigo  
 Etxeberria Joxi  
 Etxeberria Lurdes  
 Etxeberria Mikel  
 Etxeberria Miren Josu  
 Etxeberria M<sup>o</sup> Jose  
 Etxeberria M<sup>o</sup> Paz  
 Etxeberria Ramon  
 Etxezarreta Ane  
 Etxezarreta Iñaki  
 Etxezarreta Itziar  
 Etxezarreta Jesus M<sup>o</sup>  
 Etxezarreta Jose Luis  
 Etxezarreta Jose M<sup>o</sup>  
 Fernandez Henar  
 Fernandez Ina  
 Fernandez Izaskun  
 Fernandez Luis  
 Fernandez Rosa  
 Fernandez Susana  
 Fincias Patxi  
 Gabiria Amaia  
 Gabiria Arantxa  
 Gabiria Jose M<sup>o</sup>  
 Galdos Aitor  
 Galdos M<sup>o</sup> Angeles  
 Galdos Jose M<sup>o</sup>  
 Gallardo Elena  
 Gallastegi Aurkene  
 Gallastegi Rebeka  
 Gamiz Reyes  
 Gantxegi Eneida  
 Gantxegi Jose Mari  
 Garaikoetxea Mikel  
 Garay M<sup>o</sup> Carmen  
 Garcia Ainhoa  
 Garcia Aurora  
 Garcia Jose Angel  
 Garcia Josune  
 Garcia M<sup>o</sup> Jose  
 Garcia M<sup>o</sup> Pilar  
 Gardiandia Peio  
 Gardiandia Rodrigo  
 Gardoia Lorea  
 Garin Marisol  
 Garin M<sup>o</sup> Jose  
 Garmendia Asier  
 Garmendia Idoia  
 Garmendia M<sup>o</sup> Angeles  
 Garralda Jesus M<sup>o</sup>  
 Garrues Manu  
 Gaston Izaskun  
 Gaztañaga Enrique  
 Gisasola Eugenio  
 Goenaga Anuntxi  
 Goenaga Josetxo  
 Goenaga Martin  
 Goia Aitor  
 GOIARGI abesbatza  
 Goierri Zikloak  
 Goikoa Juan Ignacio  
 Gomez Pilar  
 Gonzalez Jorge  
 Gonzalez Josune  
 Gonzalez Mertxe  
 Gonzalez Nekane  
 Gonzalez Patricia  
 Gonzalez Pello  
 Goñi Inma  
 Gorostegi Nekane  
 Gorostidi Iñaki  
 Gorostidi Jose M<sup>o</sup>  
 Guerrero Inma  
 Guridi Esther  
 Guridi M<sup>o</sup> Angeles  
 Guridi Rakel  
 Gurrutxaga Kristina  
 Gutierrez Rosa  
 Glez de Albeniz Estibaliz  
 Hernandez Emilio  
 Hernandez Mertxe  
 Herrero Pedro  
 HBko komite lokala

Herze Elektrizitatea  
 HITS & FITS taldea  
 HUTS taberna  
 Ibañez Iñaki  
 Ibañez Margari  
 Ibañez Rakel  
 Ibañez Ruben  
 Idiakez Amaia  
 Idiakez Lurdes  
 Idiakez Simon  
 Igartua Arantza  
 Igartua Elena  
 Igartua Maixabel  
 Igartua Zigor  
 Igarza Jose Mari  
 Igarzabal Amaia  
 Ilunbe Maria Eugenia  
 Imaz Iñaki  
 Imaz Maite  
 Inaraja Iñaki  
 Inaraja Koro  
 Insausti Gaspar  
 Insausti Jonmikel  
 Insausti Karmele  
 Insausti Nekane  
 Insausti Pedro  
 Intxausti Ascen  
 Intxausti Garbiñe  
 Intxausti Mirian  
 Iraeta Arantxa  
 Iraeta Miguel Angel  
 Iraeta Patxi  
 Iraola Aitor  
 Irazoki Santi  
 Isasi Asier  
 Iturbe Marisa  
 Iturrioz Miren  
 Iturrioz Ramon  
 Iturrioz Sebas  
 Izagirre Ainhoa  
 Izagirre Amaia  
 Izagirre Andoni  
 Izagirre Arantxa  
 Izagirre Iñaki  
 Izagirre Miren  
 Izagirre Oihane  
 Izagirre Patxi  
 INSTITUTOKO irakasleak  
 Jaka Serafin  
 Jarrit Joxean  
 Jauregi Begoña  
 Jauregi Imanol  
 Jauregi Luzio  
 Jauregi Maritxu  
 Jimenez Miguel Angel  
 Jorin Marisa  
 Juanena Kexus  
 Juanisti Dorleta  
 KORTABERRI Taberna  
 Kerejeta Luke  
 Kortazar Koldo  
 Kristobal Leire  
 Ladron Antzine  
 Landa Arantxa  
 Landa Juan  
 Larrañaga Angel  
 Larrañaga Asun  
 Larrañaga Esteban  
 Larrañaga Manoli  
 Larrañaga Pilar  
 Larrañaga Rosa  
 Larrarte Josean  
 Larrarte Miren  
 Larraza Luzia  
 Larreina Jon  
 Lasa Ander  
 Lasa Bixente  
 Lasa Eli  
 Lasa Fermin  
 Lasa Gema  
 Lasa Gorka  
 Lasa Jesus  
 Lasa Jose M<sup>o</sup>  
 Lasa Joxemi  
 Lasa Xabier  
 Lazaro M<sup>o</sup> Teresa  
 Legaristi Arantxa  
 Legorburu Jone  
 Lete Eli  
 Lete Gurutz  
 Lete Jose M<sup>o</sup>  
 Leturia Iñigo  
 Leunda Arantxa  
 Leunda Esteban

Leunda Ibon  
 Leunda Joxe  
 Lizarazu Maixabel  
 Lizarraga J.A.  
 Lizarraga Mikel  
 Lizarralde Ana  
 Lizarralde Arantxa  
 Lizarralde Jonine  
 Lizarralde Mikel  
 LIZEOko ikasleak  
 Loinaz Arantxa  
 Loinaz Baltasar  
 Loinaz Itziar  
 Loinaz Karmele  
 Lopez Blanca  
 Lorenzo Juan Carlos  
 Lozano Ana Marta  
 Lozano Jose Luis  
 Luzuriaga Idoia  
 Madariaga Iñaki  
 Madariaga M<sup>o</sup> ose  
 Madina Garikoitz  
 Madina Marta  
 Madina M<sup>o</sup> Dolores  
 Madinabeitia Markel  
 Maiz Batis  
 Maleta Jose Angel  
 Marco M<sup>o</sup> Victoria  
 Markotegi Elena  
 Martin Jose Andres  
 Martin M<sup>o</sup> Paz  
 Mateo Luis Miguel  
 Mauleon Eva  
 Mauleon Iñaki  
 Mazmela Eneida  
 Mellado Sara  
 Mendez Iñaki  
 Mendia Amaia  
 Mendia Jesus Mari  
 Mendia Joseba  
 Mendia M<sup>o</sup> Carmen  
 Mendiaraz Aitor  
 Mendiguren Iñaki  
 Mendiola Enrique  
 Mendizabal Antxiñe  
 Mendizabal Jabier  
 Mendizabal Javier  
 Mendizabal Miren  
 Mendoza Manoli  
 Mintegi Susana  
 Molina Nohemi  
 Morante Ana Belen  
 Mozo Andoni  
 Mtz. de Eskerrikasko Asun  
 Mujika Iñaki  
 Mujika Jose Ramon  
 Mujika Josetxo  
 Mujika Juan M<sup>o</sup>  
 Munduate Jose M<sup>o</sup>  
 Munduate Maite  
 Municipalistak H.B.  
 Murua Aloña  
 Murua Amaia  
 Murua Julen  
 Murua M<sup>o</sup> Teresa  
 Narraspe Miren Karmele  
 Navarro Karmele  
 Nuñez Pablo  
 Ocariz Andres  
 Ocariz Lucia  
 Odriozola Ana Lurdes  
 Ojartzabal Ainara  
 Ojanguren Gorka  
 Ojanguren Leire  
 Ojanguren Mauri  
 Olabarria Familia  
 Olabide Gladis  
 Olazabal M<sup>o</sup> Jose  
 Oñatibia Itziar  
 Oñatibia Lurdes  
 Orbegozo M<sup>o</sup> Jesus  
 Ormazabal Ane Miren  
 Ormazabal Eluska  
 Ormazabal Imanol  
 Ormazabal Iñigo  
 Ormazabal Joakin  
 Ormazabal Jon  
 Ormazabal Jose Antonio  
 Ormazabal Lazor  
 Ormazabal Lourdes  
 Ormazabal Luis  
 Ormazabal Marialen  
 Ormazabal M<sup>o</sup> Isabel  
 Ortiz Lurdes

Ortiz Mirari  
 Oruesagasti Gorka  
 Oruesagasti Jesus  
 Oruesagasti Jone  
 Oruesagasti Markel  
 Osinalde Amaia  
 Osinalde Maribi  
 Ostadar Mendi Taldea  
 Ostiza M<sup>o</sup> Angeles  
 Otabarte mariaje  
 Otamendi Asier  
 OTAMOTZ banatzaileak  
 Otermin Izaskun  
 Otermin Jabier  
 Oyarzabal Florentino  
 Padron Araiz  
 Padron Jose Luis  
 PAGOETA Taberna  
 Pagola Isabel  
 Palacios M<sup>o</sup> Jose  
 Palmero Mailu  
 Parra Pako  
 Pastrian Juan Carlos  
 Peñagarikano J.L.  
 Perez Iker  
 Perez Itziar  
 Perez Monika  
 Perez Patxi  
 Perez Santi  
 Pikasari Laura  
 Pildain Amaia  
 Pildain Josi  
 Pinadero Lidia  
 Plazaola Jesus  
 Plazaola Joseba  
 Plazaola Maitane  
 Pozueta Arantxa  
 Pozueta Edurne  
 Pradilla Edurne  
 Pradilla Ismael  
 Quevedo Gorka  
 Quevedo Maite  
 Ramos Maria  
 Redin Mirian  
 Requejo Belen  
 Rezola Karmele  
 Rezusta Arantxa  
 Rodanos Ainara  
 Rodrigo Txomin  
 Rodriguez Ana  
 Rodriguez Anton  
 Rodriguez Asier  
 Rodriguez Carlos  
 Rodriguez Esther  
 Rodriguez Jose Antonio  
 Rodriguez Maier  
 Rodriguez Marko  
 Rodriguez M.Carmen  
 Rodriguez Pello  
 Rojo Kontxi  
 Ros Mertxe  
 Rueda Jose Manuel  
 Ruiz Imanol  
 Ruiz Jesus  
 Ruiz Lierni  
 Ruiz Marian  
 Saez Fernando  
 Sagarna Alkain  
 Sagastibeltza Juanjo  
 Sagastizabal Araitz  
 Salaberria Arantxa  
 Salaberria Candido  
 Salaberria Ignacio  
 Salaberria Miren  
 Salaberria Mirene  
 Salaberria M<sup>o</sup> Angeles  
 Salaberria M<sup>o</sup> Pilar  
 Salamero Andoni  
 Salamero Antonio  
 Salamero Begoña  
 Salegi Marisa  
 San Miguel Maite  
 San Vicente Iker  
 Sanchez Inma  
 Sanz Matilde  
 Sarasola Josu  
 Sasieta Alaitz  
 Sasieta Axun  
 Sasieta Lurdes  
 Sasieta Olatz  
 Segurola Arantxa  
 Serna Mertxe  
 Sorluze Izaro  
 Soto Mentxu

Sudupe Arantza  
 Sudupe Estitxu  
 Sukia Gurutze  
 Taboada Ana Belen  
 Telleria Mila  
 Tena Joxe Mari  
 Tirapu Leire  
 Tirapu Luis  
 Toledo Jesus  
 Toledo Jon  
 Toledo Marian  
 Torner Montse  
 Torres Beñat  
 Torres Luis  
 Torres Maialen  
 Tramon Balentin  
 Treku Asier  
 Trigos Ander  
 Txaje  
 Txanpi  
 Txintxurreta Aitor  
 Txintxurreta Ander  
 Txintxurreta Elizabet  
 Txintxurreta Iñigo  
 Txintxurreta Nerea  
 Ugalde Maite  
 Ugarteburu Ino  
 Ugartemendia Ines  
 Unanue Marisa  
 Unzurrunzaga Aitor  
 Urbegain Anes  
 Urbegain Zirineo  
 Urdangarin Arantxa  
 Urdangarin Beatriz  
 Urdangarin Iñaki  
 Urdangarin Karmele  
 Uribesalgo M<sup>o</sup> Carmen  
 Urkiola Arantxa  
 Urkiola M<sup>o</sup> Isabel  
 Urmeneta Xabi  
 UROLA K.E.  
 Urrate Eider  
 Urrate Igor  
 Urrate Puri  
 Urrestarazu Iñaki  
 Urrestarazu Nati  
 Urrestarazu Patxi  
 Urrestilla Jon  
 Urretabizkaia Beñat  
 Urruzmendi Isa  
 Urteaga Iñaki  
 Urteaga Mirari  
 Urzelai Arantxa  
 Urzelai Itziar  
 Urzelai Juan  
 Urzelai Juan Luis  
 Urzelai Juani  
 Urzelai M<sup>o</sup> Eugenia  
 Urzelai Patxi  
 Usandizaga Anttoni  
 Vielba Marisa  
 Villanueva Josemari  
 Villar Monika  
 Vulcanizados Otaegi  
 Zabala Iñaki  
 Zabaleta Inma  
 Zabaleta Jose Ignacio  
 Zabaleta Juani  
 Zabaleta M<sup>o</sup> Isabel  
 Zabaleta M<sup>o</sup> Jose  
 Zabaloz Izaskun  
 Zabaloz Toribio  
 Zaldúa Itziar  
 Zaldúa Jon  
 Zaldúa Joseba  
 Zaldúa Koldo  
 Zaldúa Lurdes  
 Zaldúa Maite  
 Zaldúa M<sup>o</sup> Jesus  
 Zamorano Joxi  
 Zelaia Nati  
 Zinkunegi Agustina  
 Zinkunegi Juana M<sup>o</sup>  
 Zubeldia Koldo  
 ZUBI-ONDO Elkartea  
 Zubillaga  
 Agurtzane  
 Zubizarreta Ander  
 Zubizarreta Miren  
 Zufiaurre Jon  
 ZUHAIZTI Taberna  
 Zurdo Lander  
 Zurdo Oskar

# Urretxu eta Zumarraga: Zura edo harria, baina batez ere... artisten lana

Goiko tituluaren azpian antzinako ugazaben bizimodua izkutatzen da. Garai hartako gizartea ezagutu daiteke **Alberto Santanak** zuzendu eta bideratutako eta Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako diputazioek antolatutako **Ars Lignea**, (zurezko artea) izeneko erakusketan. Bertan, gure ahaideok elizak, basilizak edota baserriak eraikitzeke garaian kontutan hartzen zituzten irizpideak jasotzen dira.

**Koldo Argandoñak**, historialaria eta ikerlaria bera, garai hartako bizimoduaren berri eta zurezko arteak gure herriotan izandako garrantzia eta jasandako bilakaerari buruzko xehetasunak eman dizkigu. Erakusketa bera eta hemen kontatuko direnak ez dira gaur egungo kontuak. Garai hartako gizartea ulertzeko oso baliagarria da erakusketa hau. Interesatuta izanez gero, maitzetik ekainera bitartean Gasteizko Katedral Berrian izango duzue ikusgai.

Zurezko artea, XV. mendetik XVII. mendearen hirugarren hamarkada arte, 1635 urte inguru arte emandako arte mota da. Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia dagokienez, Bizkaian izan ziren ugarien modu honetako eraikuntzak, Gipuzkoan gutxiago eta Araban apenas eraiki baitzen zurezko eraikuntza erlijiosorik. Gipuzkoan, Deba Garaian bakarrik ezagutu zen zurezko artea, gainontzeko bailaretan, ez dago zurezko eraikinen aztarnarik, **salbuespen bakarra Urretxuko San Martin de Tours eliza eta Zumarragako Antiguako eliza dira.** Aipagarria da gainera, Urretxuko San Martin de Tours eliza, Gipuzkoako zurezko egungo parrokia bakarra dela.

## ● **Bi aukera: zura edo harria**

Garai hartan, harria lehen mailako materiala zen, **harrizko eraikuntzek, zurezkoek baino prestigio handiagoa zuten.** Zura, berriz, ez da hain material iraunkorra. Harria baino merkeagoa zen, garai hartan baso gehienak herriarenak izanik, lehengaia, hau da, egurra doane-

koa zelako.

Elizak herritarrengandik jasotzen zituen hamarrenetatik ordaintzen zituen bere gastuak. XVI. mendean Zumarragan baserriak Urretxun baino ugariagoak zirenez, baliabide ekonomiko gehiago zuten Zumarragan. Urretxun beraz, nahikoa baliabide ez zegoenez, zurezko eliza eraiki beharra izan zen, nahiz eta benetako nahia harrizkoa eraikitzea zen.

## ● **Estiloa eta baliabide ekonomikoak**

Urretxuko San Martin de Tours elizaren ganga errenazimentu garaikoa da. Elizaren elementurik garrantzitsuenak, erromatar erako ganga edo kupula da dudarik gabe. Ganga hau Euskal Herriko zurezko elizen artean garrantzitsuenak eta handiena da, 624 metro karratu neurtzen ditu. Estilo aldetik, oso aurreratua da, iraultzailea eta ausarta. Garai hartarako modernoena. Oso teknika berriztatzailea eta sakona erabili zuten, Juan de Lizarazuk gangaren proiektuaren egileak eta Juan de Beisagasti gabiriarrak, gan-

Antiguako hasierako eraikuntzatik, ateko arkiboltak bakarrik mantentzen dira. Pareta nagusian garai bateko kalbarioaren aztarnak ikus daitezke oraindik ere.





San Martin de Tours eliza XV. mendearen bukaera eta XVI. mendearen hasieran handitu zen. 1505 urte ingurukoa da atzealdeko atea. Atearen gainaldean, *San Martin. Ave Maria* irakur daiteke.

garen egileak. Zurezkoa izanik orokorrean bigarren mailakotzat hartu da.

Zumarragako Jasokunde eliza ordea, estilo aldetik ez zen garai hartarako Urretxukoa bezain aurrerakoa. Harrizkoa izanik prestigio handiko eliza zen. Bere garaiko gotiko estilo akademizista jarraitu zen egiterakoan. Harria lantzean, alde aurretik ezarrita zeuden kanonak betetzen zirelako, egin zen gotiko erako kupula Zumarragan, nahiz eta gutxienez, Urretxukoa baino 30 urte beranduago eraiki zen.

---

**Udal basoei esker ditugu zurezko eraikinak. Egun ezinezkoa litzateke**

---

### ● Eboluzio kronologikoa

Gaur egungo Antigua eta San Martin de Tours ez dira hasieran eraiki bezalakoak, behin eta berriz berritu dira. Hasierako hormak ere aldatuta daude. Gertutasun geografikoagatik parekotasun handiak dituzte, edo behintzat izan dituzte urteetan zehar bi elizek.

Ezkerrean, Antiguako zursare koroa. Antiguakoa da hain zuzen ere, egungo Gipuzkoako zurezko kororik garrantzitsuena.

Argazkia: Txema Camara. *Ars Lignea* liburutik ateratakoa


Eskubian, San Martin de Tourseko zurezkozutabeak, XVI. mendearen bigarren erdialdean egindakoak. Kapitela dorikoa arrabekin ikus daiteke bertan.

Argazkia: Txema Camara. *Ars Lignea* liburutik ateratakoa

### Antiguako eliza

Antiguako eliza XIV. mendekoa da, 1300 urte ingurukoa San Martin de Tours eliza baino zaharragoa, baina hasierako eraikuntzatik ateko arkiboltak bakarrik mantentzen dira. Leihoak eta eskailerak ere ez dira garai hartakoak. XV. mendearen bukaeran Ahaide Nagusien eta hiriburuen arteko bakealdia eman eta egoera ekonomikoa hobetu zenez eliza handitzea erabaki zen. Gaur egun duen luzera eman zitzaion ateko arkiboltak mantenduz.


Barruko lanak, berriz, XV. mendearen bukaeran eta XVI. mendearen hasieran egin ziren. Koroa 1524 urterako bukatuta zegoen. Gipuzkoako egungo kororik nagusia da, Bizkaian parekorik badago ere. Zursare koroan ikusi daitezkeen pertsonen arpegiak ere ordukoak dira, nahiz eta duten xehetasun faltagatik zaharragoak diruditen. Pertsonak irudikatzerakoan, zurezko teknika erabat eza gutzen ez zutelako zuten zehaztasun falta orduko irudiek.




---

**Harrizko eraikuntzek zurezkoek baino prestigio handiagoa zuten garai hartan**

---



Antigua eliza, zutabeek eusten duten koroa eta mende honetako 70. hamarkadan egindako lanen ondoren bistan gelditu ziren kabrioak. Inguruko basoetako haritzekin egin zen Antiguako barrualdea.

Argazkia:Txema Camara. Ars Lignea liburutik ateratakoa.

Absidea, XVII. mendearen bukaeran egin zen. Argia sartzeko leihotxo bat zabaldu zen bere atzealdean eta bide batez, kalbarioa bertara eraman zen, tokiz aldatuz. Bertan, MCCCCLXXV (1475 urtea) irakurri badaiteke ere, kalbarioa ez zen ordutik han egon, elizaren pareta nagusian egon zen lehenengo kalbarioaren aztarnak oraindik ere ikusi daitezke bertan.

XVI mendearen bukaeran, ganga edo kupula eraiki zen. Gangak babesaz emateaz gain, eliza berari, bertako santuei eta herriari ospea ere emango zien. Ganga josteko kabrioak egin ziren azpi aldean.

XVIII mendean kupulako zati bat erori eta berritu egin zen. XX mendeko 70 hamarkadan egindako konponketa lanetan kupula bota egin zen. Azpiko kabrioez gangak baino garrantzi gehiago zutela pentsatu baitzen. Baina, kabrioak ganga eusteko besterik ez ziren egin bere sorreran, benetako garrantzia gangak zuen. Beraz, garai hartakoek izkutatu nahi zuten jarri zen bistan konponketa lanak egiterakoan eta benetan garrantzia zuena, ganga, desegin egin zen.

Antiguako ganga hau Urretxuko San Martin de Tours ganga iraultzailearen kopia izan zen.

---

**Betidanik izan dute bi herriek bata bestearen eragina, eraikinen berdintasunean ikus daiteke hau**

---

### San Martin de Tours eliza

XV. mendearen bukaeran, eta XVI. mendearen hasieran, lehengo eliza bota eta handiagoa eraiki zen. Lanak aurrealdeko atetik hasi zirela esan daiteke. Hauxe baita estilo aldetik bi atean artean zaharrena. Aurrealdeko atea 1505. urte inguruan egindakoa bada, atzealdekoa bost edo hamar urte beranduago eraiki



San Martin de Tours eliza, zutabeetan garai bateko koroa eusten zuten tornapunten aztarnak ikus daitezke. Errenazimendu garaiko kupula ere ikus daiteke.

Argazkia:Txema Camara, Ars Lignea liburutik ateratakoa.

zen, estilo aldetik berdina izanik atzealdeko atea aurrealdekoa baino eboluzionatuagoa baita.

XVI. mendean bertan, barrualdean, harrizko zutabeak egin ziren, zutabe hauek bost bat urte lehenago Antiguako elizan egindakoen kopia baino ez ziren. Zutabeekin batera, Antiguako koroa ere kopiatu zuten urretxuarrek. San Martin de Tours elizako zutabeetan, buelta osoa ematen zuen koroa eusten zuten tornapunten aztarnak oraindik ere bistan daudelako esan daiteke hau.

Agintari erlijiosoek elizara egindako bisitan hala eskatuz, 1570. urterako ganga edo bobeda bukatu zen. Horretarako koroa kendu zen eta elizari zabaldunde eta argitasun handiagoa emateko, zutabeak luzatu egin ziren altuera gehiago emanaz. Zutabeen zati berria egurrez egin zen. XVI. mendeko kanonak jarraituz, kapitela dorikoa arrabekin egin zen.

### ● Kalea nagusitu zeneko garaia

XVI. mendean zehar, Zumarragan kaletarrak ugaritzen ari ziren Eitza eta Zufiurre auzoetan eta eliza, berriz, mendian zegoen. Herritarrek, kalean bertan eliz berria eraiki nahi zuten, luze jo zuen erabaki gatazkatsua izan zen.

1576 urtean lortu zen Santisimoa eliz berrira jeitea. Geroztik beraz, bi eliza zeuden Eliz Berria eta mendian gelditu zena, Antigua alegia.

Zumarragan baliabide gehiago zegoenez, harrizko eliza egin zen. Baina, pleitoak medio, eraikuntza lanak erabat gelditurik egon ziren urteetan. XVII. mendearen erdialderako ganga eraikita zegoen eta XVIII. mendearen erdialderako Tomas de Jauregi urretxuarrak egindako Erretaula Nagusia ere, egin zegoen, Jasokundeko Amaren irudiarekin, baina eliza honen historia beste baterako kontua bat da...

# Landareak zaintzeko aholkuak

## Zumalore loredendako Begoña Sagastizabal

### Sagastizabalek emanak.



# Begoña Sagastizabal

## Zumalore loredendakoa



Udaberria da bai kanpoko zein barruko landareak landatzeko garairik aproposena. Landareek ez omen dute dedikazio handirik behar, egunero piska bat begiratu eta kasu egitea nahikoa da landare ederrak izateko. Ura behar duten begiratu, zimelduriko hostoak kendu... hori da egunero egin behar dena. Hala ere, etxeko landareak erabat zimeltzea nahi ez badugu behintzat derrigorrezko zenbait aholku ere badaude.

### LURRA

Landare berriak landatzerakoan lur zaharra aprobeztatu badaiteke ere, egokiena lur berrian landatzea da. Lur guztia aldatzerik ez badago, gainekaldeko lurra aldatu beharko litzateke gutxienik. Gainera lur hori, zaharra nahiz berria ongarriztatzea aholkatzen

da.

### ONGARRIA

Dendetan saltzen den ongarrria nahikoa bada ere, ongarririk onena mendiko simaurra da. Hamabostean behin ongarrria bota beharko zaio lurrari.

### URA

Eguraldia eta landarearen arabera bota behar da ura. Eguraldi hezearekin kaltegarria da ura sarritan botatzea. Ur gehiegi botatzea ere kaltegarria da. Bezperan jasotako urarekin komeni da landareak ureztatzea.

### ARGIA, EGUZKIA, BEROA

Landareak, haizea, eguzkia eta haize korronteetatik ondo babestu behar dira gal ez daitezen.

✓ Zein landare duzu gustukoen?  
Oso gustuko ditut landare guztiak.

✓ Zein gustatzen zaizu gutxien?  
Zimeldutako edozein landare.

✓ Nori oparituko zenioke lore sorta bat?

Amari, ahizpari, alabari lagunen bati...

✓ Nork oparitutako lore sorta jasoko zenuke gustura?

Egun guztia lore artean egiten dudanez, beste opariren bat nahiago nuke.

✓ Nork zaintzen ditu zure etxeko landareak?

Neuk zaintzen ditut eta baita semeak ere, gustatzen zaizkio landareak.

✓ Esku ona al duzu landareetarako?

Hala uste dut, hala ere garrantzitsua da landareei egunero kasu egitea.

✓ Gizonezkoak ala emakumezkoak nortzuk dira bezerorik onenak?

Normalean emakumezkoak arduratzen dira landarez baina gizonezko askoren afizioa ere bada.

✓ Zumarraga eta Urretxuko mutilek lorerik oparitzen al dituzte?

Bai, lore asko oparitzen dituzte hemen-go mutilek. San Valentin egunean eta amaren egunean batez ere.

**Lanbasa**

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

**Keros** Enmarkatzeak  
Arte ederrak  
Dekorazioa  
Opariak


Labeaga, 35 ☎ 72 41 61

**GANBARA**

LIBURUENDEN


Labeaga, 52  
☎ eta faxa: 72 50 45

## Zer iruditzen zaizu *Tele 5k* eskaintzen dituen pilota partiduak Zumarraga-Urretxun ezin ikustea?



**Ignacio Odriozola**

Oso gaizki dago. Pilota kirolik onena eta ederrena da eta ezin ikustea oso gaizki dagoela uste dut. Denbora aurrera doa eta ahal den azkarren konpondu beharko litzateke.




**M. Arakama**

Gaizki, oso gaizki iruditzen zait. Konpondu egin beharko litzateke. Behar den antenna ipini beharko lukete. Hurrengo txapelketarako gutxienez ikusteko moduan behar luke.




**Mila Zubimendi**

Ez dut pilota jarraitzen, baina gaizki iruditzen zait. Inguruko herrietan ikusten bada, hemen ere aukera izan beharko genuke. Konpondu beharreko kontua dela uste dut.



**Ramon Telleria**

Gaizki dagoela uste dut, konpondu egin beharko litzateke eta pilota ikusteko aukera izan beharko genuke. Aste honetako finala hala ere, ETBn ikusiko dugu.



**Jesusa Salegi**

Oso gaizki iruditzen zait, beste herri batzuetan ikusten da eta hemen ez. Hemengo jolasa da eta ikusteko aukera izan behar genuke.



**Joseba Albisua**

Gaizki iruditzen zait, gainera ikusle asko galtzen dituela uste dut. Konponbideren bat bilatu beharko litzatekeela uste dut.



**BAPRI**

Animaliadenda

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ZUMARRAGA ☎ 72 61 13



**Mutua General de Seguros**

Iparragirre, 11 URRETXU ☎ 72 25 99

**TEJANO**



**Azken moda berria!**

Ipeñarrieta, 4 Urretxu


# Zumarragarrak nagusi Urola Garaiko derbyan

Aurtengo herri arteko pilota txapelketa-ko lehen kanporaketak aparteko ikusmina piztu zuen gure herriotako pilotazaleen artean. Izan ere, patuak behartuta, bi herrien artean jokatu behar izan zen bigarren kanporaketarako txartela.

Kanporaketaren gatza eta piperra ez zen kantxan egon, zumarragarren nagusitasunak atentzioa armailetara bideratu baitzuen. Bi frontoietan jendetza polita bildu zen pilotariak animatu eta ahal zen neurrian *bizilaguna* zirikatzeke.

Kadete mailan **Gisasola/Lasa-Ormazabal** aritu ziren Urretxuarren partetik eta **Zabalo-Intsausti** zumarragarrenetik. Ederrenan burututako lehia kanporaketa guztiko borrokatuena izan zen eta zumarragarrek ondo kostata lortu zuten garaipena tanto baten aldearekin (18-17) lortuz. Buelakoan **Intxaustiren** kemena erabakitzailea izan zen. (18-6)

Gazte mailan **Gabirondo-Calvo** zumarragarrek nahiko erraz gairiditu zituzten **Murua-Pastrian** bi partiduetan. Neurketa honetan **Gabirondoren** saka erabakiorra izan zen baina aipagarria da urretxuar aurrelariaren bizitasuna. Emaitzak (22-9) eta (22-13).



Argazkia: Javier Aguado

Herri arteko pilota txapelketa Urretxu-Zumarragako pilota eskolako hurrek jokatu dute.

Senior mailan inon baino nabarmenagoa izan zen bi taldeen arteko aldea. Zumarragarren partetik aritu ziren **Urretabizkaia anaiek** eta **Erostarbek** aise gairiditu zituzten **Gago** eta **Serrano**. Urretxuar bikotea, zumarragarren jostailu bihurtu ziren. Kanporaketako bitxikeria **Aitor Gagoren** keinuak, oihiak eta beste-

lakoak izan ziren, urretxuarren txaloak eta zumarragarren txistuak sortu zutenak.

Hilaren 4an Zumarragak 2 eta 1 irabazi zuen Bergararen aurka, lerro hauetatik zumarragarrei hurrengo kanporaketetan zortea opatu eta urretxuarrei pilota eskolarekin emaitzak iritsiko direla eta lanean jarrai dezatela esatea nahiko genuke.

**MASTER** CADENA **HEZKOR**

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5

☎ 72 41 31



**MAPFRE**

Aseguru etxea

S. Esnaola, 6 ZUMARRAGA

☎ 72 20 00 faxa:72 24 00

**EDURNE**

Punta Puntako moda !

Aukerarik hobereana  
gizonezko eta gazteentzat

Piedad, 18 Zumarraga ☎ 72 14 17

**Kahunas**

O'Neill-Astore-Liberto-H.W.-Libero

Nekolalde,5

☎ 72 56 89

**A**



Secundino Esnaola,5

☎ 72 42 07

ZUMARRAGA

deportes

**APALATEGUI**

Zabaleta, 3

☎ 28 77 87


DONOSTIA

**Otamotzek** eskerrak eman nahi dizkie **Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskera Departamentuari, Urretxuko udalari** eta **Zumarragako udalari**, aldizkaria berriz ere martxan jartzeko eskainitako laguntzagatik.



**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**

Aldizkari honek **Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskera Departamentuaren** diru laguntza jaso du.



**URRETXUKO  
UDALA**

Aldizkari honek **Urretxuko udaleko** diru laguntza jaso du



**ZUMARRAGAKO  
UDALA**

Aldizkari honek **Zumarragako udaleko** diru laguntza jaso du

## Solasaldiak

Zintzo Mintzo elkarteak Bisasti AEK euskaltegiaren eta udal euskaltegiaren laguntzarekin antolatutako **BERRIKETAN** izeneko solasaldiak izango dira maiatza eta ekainean Urretxuko **Kultur Etxean arratsaldeko 7:30etan**. Hizlari guztiak heritarrak izango dira. Maiatzak 13: **Euskaldunberrien esperimentziak**.

Maiatzak 22: **3,2,1...Grabatzen!** (antzerki eta zineari buruzkoa)

Maiatzak 27: **Ilargiaren eragina eta tenporen garrantzia**.

Ekainak 3: **Erromerietatik Golde-nera... Garai desberdinetako dibertsioak**.

## Jaiak

Maiatzaren 8-11: **Ezkion San Migel jaiak** ospatuko dira.

Maiatzaren 15-18: **Eitzako jaiak** ospatuko dira.

Maiatzak 23-25: **Salbadorreko jaiak** ospatuko dira.

## Lehiaketak

Maiatzak 9: **Iparagirre saria lehiaketaren aurkezpena**. Poesia eta narratiba lehiaketa da hau. Komiki lehiaketa, Bertso-paper lehiaketa, Pintura lehiaketa eta Argazki lehiaketaren deialdia ere egun berean egingo dira.

## Liburu azoka

**Maiatzak 9-18:II. Liburu azoka** egingo da Areizaga-Kalebarren plazan. Ekitaldi ugari antolatuko dira bi aste-burutan.

✓**Maiatzak 9:Liburu azoka zabalduko** da eguerdian, arratsaldeko 7etan **William A. Christian** idazleak, Ezkioko agerraldiei buruz berak idatzitako **liburuaren aurkezpena** egingo du Ezkion.

✓**Maiatzak 10: Haurrentzako jolasak**, musika ikastetxeko **trikitilariak**, **Kaskazuri** eta **Txilipurdiren kaleko antzerkia**, 7:30etan **William A. Christian** idazleak hitzaldia emango du Zumarragako udaletxean. **Hits & Fits** bandak antolatutako ekitaldia.

✓**Maiatzak 11:Zumarragako txistulariak** airtuko dira eta arratsaldeko 7:30etan **Soul Bandaren kontzertua**

✓**Maiatzak 17an**, Goizean **haurrentzako jolasak**, **Kaskazuri** eta **Txili-purdiren kale antzerkia**, eta 6etatik 8etara **Antxiñe Mendizabalen liburuaren aurkezpena** eta sinatzea eta 7:30etatik 8:30etara **Musika ikastetxeko trikitilariak** airtuko dira.



● **Zorionak ENEKO!**  
Maiatzaren 11an beteko dituzu urteak, Ondo pasa zure urte betetze egunean eta jarraitu hain alai izaten. **ZORIONAK!!!**



● **Zorionak Josu eta Barbara jai**o berri zaizuen Elixabete haurragatik eta **Barbara, ZORIONAK** maiatzaren 1ean zure urtebetetze eguna izan zelako. Koadrila guztiaren partez.



● **Nahiz eta berandu** izan nahi zaituztegu zoriondu. Azken hilabe teotan hainbeste ospakizun eta nola geratu mutu? **Zorionak** eta mila muxu nahi dizuegu bialdu.




**ARTYRO**  
Eskolan edota etxean egin behar dituzun eskulanetarako behar duzun **guztia**  
Ipeñarrieta,4 ☎ 72 14 20 URRETXU

**ELIZ - KALE**  
**L**AUTOESKOLA  
Bidezar, 11  
20700 ZUMARRAGA ☎ 72 04 52

**BIONA**  
**AROSZTEGIA**  
Altzariak neurritan  
☎ eta faxa: 72 02 55  
Erratzu, z/g URRETXU

**ITURGINTZA**  
 **LUIS ANGEL**  
Gure erakusketan zain gauzkazu  
Deskargarako bidea, z/g ☎ eta faxa 725459

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:  
En la edición de esta publicación colabora:  
**kutxa** fundazioa  
fundación

 **ANSA**  
Ura guztion eskura!  
S. Esnaola 34, etxeazpia  
20700 ZUMARRAGA ☎ 72 04 23

**LAGUN ARO ASEGURUAK**  
Kalebarren, 1  
Zumarraga  
Tel: 72 50 22

  
**SEGUROS LAGUN ARO**  
ASEGURUIAK

Lagun agurgarria:

Gaur egungo egoera ekonomikoak, gure **jubilazio pentsioa** jasotzeko orduan nabarituko den **moneta eze-gonkortasuna** eragingo du zalantzarik gabe.

Zeure bizitzaz arduratzen zaren hori, ezinbestean jakinarazi behar dizugu komenigarria dela erretiratzen garenean jasoko dugun **pentsioa aurrezki-plan batekin osatzea**, eta horrela, bi kantitateak jasoz, gutxienez gaur egun daukagun bizimoduari eusteko edo, gura baduzu, nahi dugunean erretiratzeko **aukera emango digun jubilazioa ziurtatuta** edukiko dugu.

Horregatik **aurrezki-plan** bat eskaini nahi dizugu, berarekin zure etorkizuna erabateko lasaitadunez gozatu ahal dezazun.



### **ESKAINTZAREN ADIBIDEA**

Sexua: **Emakumea**

Adina: **36**

Aurreztu beharreko hileroko prima: **15.000pzta.**  
(Primaren urteroko hazkundea %5a)

65 urterekin jaso beharreko gutxi-beherako prima: **32.872.425pzta.**

**%10eko zergarinduarekin.**

Aidetasunez

**Patxi Velez de Mendizabal**  
Sukurtsaleko zuzendaria

A handwritten signature in black ink, appearing to be 'Patxi Velez de Mendizabal'. The signature is stylized and written in a cursive-like font.